# KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK

***ADUNA***
***2016KO MAIATZAK 04 (ERREFUSA)***
***2016KO MAIATZAK 30 (ONTZI ARINAK)***

SPORA
INGURUMEN ZERBITZUAK

**Hernani**
Pg. Akarregi P-4 A · 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
Telefonoa 943 55 48 74 · fax 943 55 09 00
www.spora.es · spora@spora.es

# AURKIBIDEA


1 SARRERA ..... 2

2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA ..... 4

2.1 LANDA LANA ..... 4

2.2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK ..... 4

2.2.1 Hondakin guztiak ..... 5

2.2.2 Hondakin guztiak hildako animaliak kenduta ..... 7

3 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA ..... 9

3.1 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK ..... 11

4 ONDORIOAK ..... 12

4.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA ..... 12

4.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA ..... 13

5 2014-2016ko KARAKTERIZAZIOEN ARTEKO ALDERAKETA ..... 15

6 BILKETA SISTEMA BERDINA DUTEN UDALERRIEN ARTEKO ALDERAKETA ..... 17

7 ERANSKINA ..... 22

7.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA ..... 22

7.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA ..... 23

# 1 SARRERA

Adunako Udalak 470 biztanle ditu (INE. 2015), 6,95 kilometro karratuko hedadura (67,63 biztanle/km$^2$) eta egindako behaketen arabera, 215 etxebizitza dauzka gaur egun. Mankomunitateko datu basearen arabera, 123 etxebizitzek konpostatzen dituzte hondar organikoak (%57a); hala ere, egun auzokonposta egiten dutenen datuak eguneratu gabe daude eta askoz kopurua altuagoa dela estimatzen da. Bestalde, egindako jarraipenen zehar, bertan materia organikoa animalien bidez kudeatzen duten 12 etxebizitza identifikatu dira (etxebizitzen %5,50a)




1. Abaltzisketa
2. **ADUNA**
3. Albiztur
4. Alegia
5. Alkiza
6. Altzo
7. Amezketa
8. Andoain
9. Anoeta
10. Asteasu
11. Baliarrain
12. Belauntza
13. Berastegi
14. Berrobi
15. Elduain
16. Gaztelu
17. Hernialde
18. Ibarra
19. Ikaztegieta
20. Irura
21. Larraul
22. Leaburu
23. Lizartza
24. Orendain
25. Orexa
26. Tolosa
27. Villabona
28. Zizurkil

1. **irudia:** Tolosaldeko mapa

Konpostajea materia organikoa kudeatzeko bide bakarra daukaten landa eremuko herriak.

Konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarrizko bidea daukaten landa eremuko herriak.

Konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarrizko bidea daukaten atez ateko herriak.

Bilketa ekarpen-guneko edukiontzietan eta konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarrizko bidea daukaten hiriak.




**2. irudia:** Aduna Tolosaldeko mapan.

Gaur egun, hondakinak biltzeko bi sistema ezberdindu daitezke Adunan: mistoa herrigunean eta ekarpen-guneetan landa eremuan.

Herriguneko sistema mistoan, errefusa atez ate biltzen da, ontzien bidez; materia organikoa, berriz, konpostajearen bidez kudeatzen da (etxeko konpostajea ala auzokonpostaren bitartez); beste frakzioak (ontzi arinak, papera eta kartoia, beira) edukiontzi irekietan biltzen dira. Bestelako hondakinak etxoletan biltzen dira, pixoihalak eta hondakin bereziak.

Landa eremuko etxoletan, frakzio guztiak bereizteko edukiontziak daude: errefusa, ontzi arinak, papera eta kartoia, beira, pixoihalak eta garbiguneko hondakinak. Materia organikoa konpostajearen bidez kudeatzen da.

Gaur egun, astean behin biltzen da errefusa Adunan, astelehenetan. Atez ateko ontzietatik jasotako errefusa edukiontzi handi batera pasatzen da; hau da, hain zuzen ere, karakterizatu dena.

Bestalde, Eurocontrol-en eskutik egindako Adunako eta Orendaingo ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak ere aurkezten dira txosten honetan.

# 2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

## 2.1 LANDA LANA

Apirilak 25ean, astelehenean, jaso zen errefusa azkeneko aldiz karakterizatu baino lehenago, ordutegia jarraituz. Maiatzak 4an jaso zen berriro, karakterizazioa egiteko. Beraz, ikertutako materiala 9 egunetakoa izan da, apirilak 25 eta maiatzak 3 bitartekoa, hain zuzen ere.

Karakterizazioaren egunean, lehenik eta behin, deskargatutako hondakin guztiak zabaldu dira eta, eramandako kopurua ikusita, behin laurdentzea erabaki da. Karakterizatu ondorengo pisua 207,66 kg-takoa izan da (estimatutako hasierako pisua 415,32 kg-takoa da)



**3. irudia:** Hondakinen zabalketa.



**4. irudia:** Laurdenketa.

| HERRIA | EGUNA | ORDUA | IKERTUTAKO EDUKIONTZIAK |
|---|---|---|---|
| ADUNA | 2016/05/04 | 08:30 - 12:30 | 1 |
| HASIERAKO PISUAREN ESTIMAZIOA | LAURDENKETA | BUKAERAKO PISUA | BETETAKO EDUKIONTZIAK |
| 415,32 | Behin laurdendua | 207,66 | 1 1/2 |

**1. taula**: Laurdenketaren eta pisaldiaren datuak.

## 2.2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK

Hurrengo tauletan frakzio bakoitzeko emaitzak ikus daitezke. Frakzio nagusiak eta azpi-frakzioak daude zehaztuak bertan. Karakterizazioaren zehar azaldutako hildako animalien kopurua eta ehunekoa oso nabarmena ez izanik ere, bi moduetan azalduko dira emaitzak: animalia horiek kontutan hartuta eta hartu gabe.

## 2.2.1 Hondakin guztiak

| ADUNA 2016/05/04 | | | |
|---|---|---|---|
| **Frakzioa** | **Gaia** | **Pisu garbia** | **%** |
| Gai konpostagarriak | | | |
| 1.Materia organikoa | 1.1 Haragi eta arrain hondarrak | 0,43 | 0,21% |
| | 1.2 Sukaldeko hondar hezeak | 7,51 | 3,62% |
| | 1.3 Sukaldeko hondar lehorrak | 10,94 | 5,27% |
| | Materia organikoa (denera) | 18,88 | 9,09% |
| 2.Frakzio begetala | 2.1 Lorategiko eta baratzeko hondakin hezeak | 0,54 | 0,26% |
| | 2.2 Lorategiko eta baratzeko hondakin lehorrak | 7,78 | 3,75% |
| | Frakzio begetala (denera) | 8,32 | 4,01% |
| Gai konpostagarriak (denera) | | 27,20 | 13,10% |
| **Frakzioa** | **Gaia** | **Pisu garbia** | **%** |
| Gai ez konpostagarriak | | | |
| 3.Beira | 3.1 Beira | 5,27 | 2,54% |
| | Beira (denera) | 5,27 | 2,54% |
| 4.Papera & kartoia | 4.1 Papera eta kartoia | 10,75 | 5,18% |
| | Papera eta kartoia (denera) | 10,75 | 5,18% |
| 5.Ontzi arinak | 5.1 Ontzi arinak | 15,40 | 7,42% |
| | Ontzi arinak (denera) | 15,40 | 7,42% |
| 6.Errefusa | 6.1 Errefusa: ehunak | 6,14 | 2,96% |
| | 6.2 Errefusa: pixoihalak eta sanitarioak | 110,38 | 53,15% |
| | 6.3 Errefusa: besteak | 25,81 | 12,43% |
| | Errefusa (denera) | 142,33 | 68,54% |
| 7.Bereziak & arriskutsuak | 7.1 Bereziak eta arriskutsuak | 1,47 | 0,71% |
| | 7.2 Tamaina handikoak | 0,00 | 0,00% |
| | Bereziak eta arriskutsuak (denera) | 1,47 | 0,71% |
| Gai ez konpostagarriak (denera) | | 175,22 | 84,38% |
| **Frakzioa** | **Gaia** | **Pisu garbia** | **%** |
| Bestelakoak | | | |
| Bestelakoak | Hildako animaliak | 5,24 | 2,52% |
| | Bestelakoak (denera) | 5,24 | 2,52% |
| Bestelakoak (denera) | | 5,24 | 2,52% |
| | Guztira | 207,66 | 100,00% |

**2. taula**: Adunako emaitzak (Hondakin guztiak. Pisuak kg-etan)

Hildako animaliek beste frakzioen ehunekoak eta adierazgarritasuna aldatzen dituztenez, frakzio hau kontutan hartu gabe azalduko da emaitzen interpretazioa. Dena den, emaitza guztien grafikoa ikus daiteke 5. irudian.




**5. irudia**. Grafiko orokorra. Adunako karakterizazioaren emaitzak gaika sailkatuta.

### 2.2.2 Hondakin guztiak hildako animaliak kenduta

Emaitzak beste modu batean aurkezten baldin baditugu, hau da aurkitutako hildako animaliarik gabe (ikusi hurrengo taula), gai birziklagarrien ehunekoak are altuagoak dira.

| ADUNA 2016/05/04 | | | |
|---|---|---|---|
| **Frakzioa** | **Gaia** | **Pisu garbia** | **%** |
| Gai konpostagarriak | | | |
| 1.Materia organikoa | 1.1 Haragi eta arrain hondarrak | 0,43 | 0,21% |
| | 1.2 Sukaldeko hondar hezeak | 7,51 | 3,71% |
| | 1.3 Sukaldeko hondar lehorrak | 10,94 | 5,40% |
| | Materia organikoa (denera) | **18,88** | **9,33%** |
| 2.Frakzio begetala | 2.1 Lorategiko eta baratzeko hondakin hezeak | 0,54 | 0,27% |
| | 2.2 Lorategiko eta baratzeko hondakin lehorrak | 7,78 | 3,84% |
| | Frakzio begetala (denera) | **8,32** | **4,11%** |
| Gai konpostagarriak (denera) | | **27,20** | **13,44%** |
| **Frakzioa** | **Gaia** | **Pisu garbia** | **%** |
| Gai ez konpostagarriak | | | |
| 3.Beira | 3.1 Beira | 5,27 | 2,60% |
| | Beira (denera) | **5,27** | **2,60%** |
| 4.Papera & kartoia | 4.1 Papera eta kartoia | 10,75 | 5,31% |
| | Papera eta kartoia (denera) | **10,75** | **5,31%** |
| 5.Ontzi arinak | 5.1 Ontzi arinak | 15,40 | 7,61% |
| | Ontzi arinak (denera) | **15,40** | **7,61%** |
| 6.Errefusa | 6.1 Errefusa: ehunak | 6,14 | 3,03% |
| | 6.2 Errefusa: pixoihalak eta sanitarioak | 110,38 | 54,53% |
| | 6.3 Errefusa: besteak | 25,81 | 12,75% |
| | Errefusa (denera) | **142,33** | **70,31%** |
| 7.Bereziak & arriskutsuak | 7.1 Bereziak eta arriskutsuak | 1,47 | 0,73% |
| | 7.2 Tamaina handikoak | 0,00 | 0,00% |
| | Bereziak eta arriskutsuak (denera) | **1,47** | **0,73%** |
| Gai ez konpostagarriak (denera) | | **175,22** | **86,56%** |
| | Guztira | **202,42** | **100,00%** |

**3. taula**: Adunako emaitzak hildako animaliak kenduta (Pisuak kg-etan)

Frakzio nagusiei begiratzen badiegu, karakterizatutako hondakinen %13a gai konpostagarria dela esan dezakegu, %9a sukaldekoa (6. eta 7. irudiak) eta %4a baratza edo lorategikoa (8. irudia)



**6. irudia**: Sukaldeko hondar hezeak



**7. irudia**: Sukaldeko hondar lehorrak



**8. irudia**: Lorategiko hondar lehorrak

Beste material birziklagarrien emaitzei erreparatzen badiegu berriz, oraindik errefusaren edukiontzian aztertutako hondakinen %15 inguru birziklatu litezke, ondoan kokatuta dauden edukiontzien bitartez jaso izan balira. Hau da, beira, papera eta kartoia eta ontzi arinak (plastikoa, filma, misto bezala sailkatzen diren ontziak, metalezkoak etab. barne), aztertutako hondakinen %2,60a, %5,31a eta %7,61a izan dira, hurrenez hurren.



**9. irudia**: Beira



**10. irudia**: Papera eta kartoia



**11. irudia**: Ontzi arinak

Bereziak eta tamaina handikoei dagokionez, 1,47 kg besterik ez dira aurkitu, %0,73a (bereziak bakarrik, tamaina handikorik ez) Frakzio hau garbigunera eraman beharrekoa da.



**12. irudia**: Bereziak eta arriskutsuak



**13. irudia**: Errefusa (ehunak)



**14. irudia**: Errefusa (besteak)

Azkenik, errefusari dagokionez, frakziorik handiena izan da Adunako kasuan, %70 batekin. Azpifrakzioka, ehunak %3,03a izan dira; sanitarioak, %54,53a eta bestelako errefusa, %12,75a.

# 3 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

Aurten, ontzi arinen karakterizazio bat egin da Urnietako plantan Eurocontrol-en eskutik. Adunako ontzi arinak Orendaingoekin batera ikertu dira. Beraz, hemen azaldutako emaitzak ez dira Adunakoak bakarrik baizik eta aipatutako 2 herrienak.

Azpi-frakzio ezberdinak ezberdindu dira eta 3 talde nagusietan banatu dira: eskatutako materiala, eskatu ez den materiala (inpropioak) eta papera&kartoia (baita inpropioak ere) Eskatutako materiala 11 azpi-frakzio ezberdindu dira karakterizazioan baina 4 azpi-frakzioetan azalduko dira emaitzak. Inpropioei dagokionez, 5 azpi-frakzio ezberdindu dira papera&kartoian eta beste 17 gainontzeko inpropioetan. Emaitzetan 9 bakarrik azalduko dira.

Hurrengo taulan, karakterizazioaren zehar ezberdindu diren azpi-frakzioak ("ikerketan") eta txostenean azalduko direnak ("Txostenean") erakusten dira.

| ESKATUTAKO MATERIALA | |
|---|---|
| **Txostenean** | **Ikerketan** |
| Plastikoak | Plastikoak PET |
| | Plastikoak PEAD naturala |
| | Plastikoak PEAD kolorekoak |
| | Plastikoak PVC |
| | Filmak (erabil bakarreko poltsak izan ezik) |
| | Filmak (erabil bakarreko poltsak) |
| | Gainontzeko plastikoak |
| Metalak | Altzairua |
| | Aluminioa |
| Brikak | Brikak |
| Egurra | Egurra |

| INPROPIOAK | |
|---|---|
| **Txostenean** | **Ikerketan** |
| Materia konpostagarria | Materia organikoa |
| | Lorategiko eta inausketa hondarrak |
| | Zelulosak |
| Beira | Beirazko ontziak |
| Papera & kartoia | Paper inprimitua |
| | Puntu berdea dituen etxeko ontziak |
| | Puntu berdea ez dituen etxeko ontziak |
| | Puntu berdea dituen ontzi komertzialak |
| | Puntu berdea ez dituen ontzi komertzialak |
| Bestelako plastikoak | Ontziak ez diren plastikoak (zabor poltsak izan ezik) |
| | Zabor poltsen filmak |
| | Ontzi komertzialak ala industrialak (filmak izan ezik) |
| | Film komertzialak ala industrialak |
| Bestelako metalak | Altzairua, ez ontziak |
| | Altzairuzko ontzi komertzialak ala industrialak |
| | Aluminioa, ez ontziak |
| | Aluminiozko ontzi komertzialak ala industrialak |
| Egurra | Egurra, ez ontziak |
| | Egurrezko ontzi komertzialak ala industrialak |
| Ehunak | Ehunak |
| Obra hondarrak | Obra hondarrak |
| Besteak | Aipatzeko karakterizazioaren arabera |

**4. taula**: Ontzi arinen karakterizazioetan ezberdindu diren azpi-frakzioak.

### 3.1 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK

Jarraian, egin den ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak erakusten dira, taula batean eta grafiko batean.

| ADUNA-ORENDAIN 2016/05/30 | | | |
|---|---|---|---|
| | **Gaia** | **Pisu garbia** | **%** |
| Eskatutako materiala | Plastikoak | 145,21 | 57,42% |
| | Metalak | 36,79 | 14,55% |
| | Brikak | 35,38 | 13,99% |
| | Egurra | 0,19 | 0,08% |
| Inpropioak | Materia konpostagarria | 11,69 | 4,62% |
| | Beira | 3,51 | 1,39% |
| | Papera & kartoia | 2,40 | 0,95% |
| | Bestelako plastikoak | 10,21 | 4,04% |
| | Bestelako metalak | 0,66 | 0,26% |
| | Egurra | 0,10 | 0,04% |
| | Ehunak | 1,29 | 0,51% |
| | Obra hondarrak | 0,00 | 0,00% |
| | Besteak | 5,45 | 2,16% |

**5. taula**: Adunako ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak




**15. irudia**: Adunako ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen grafikoa (azpi-frakzioak)

# 4 ONDORIOAK

## 4.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

Lortutako emaitzekin atera daitezkeen ondoriorik garrantzitsuenak honakoak dira:

- Karakterizatutako hondakinen %13a gai konpostagarria da: %9a sukaldekoa eta beste %4a lorategikoa ala baratzekoa.
- Gai birziklagarrien presentzia ez da nabarmena izan: karakterizatutakoaren %2,60a beira, %5,31a papera eta kartoia, eta %7,61a ontzi arinak, hain zuzen ere.
- Berezi eta arriskutsuen agertzea %0,73takoa izan da.
- Errefusa izan da frakziorik handiena, aztertutako hondakinen %70,31a.

| ADUNA 2016/05/04 | |
|---|---|
| **Frakzioa** | **%** |
| 1.Materia organikoa | 9,33% |
| 2.Frakzio begetala | 4,11% |
| 3.Beira | 2,60% |
| 4.Papera & kartoia | 5,31% |
| 5.Ontzi arinak | 7,61% |
| 6.Errefusa | 70,31% |
| 7.Bereziak & arriskutsuak | 0,73% |
| **Guztira** | **100,00%** |

**6. taula**: Adunan sortutako frakzio nagusien emaitzak.




**16. irudia**: Adunan sortutako frakzio nagusien emaitzak.

Datu hauekin atera daitezkeen ondoriorik aipagarrienak horrela laburbiltzen dira:

- Azaldutako materia konpostagarriaren kopurua ez da oso altua, baina errefortzuko ekintzak garatzea komeni da, kopuru hauek hobetzeko.
- Gai birziklagarrien (beira, papera eta kartoia eta ontzi arinak) datuak nahiko onak dira, baina hobetzeko tartea badago.
- Gai birziklagarriak zituzten poltsa batzuk elkarte edo taberna batekoak zirudien, beraz sortzaile berezi hauekin neurriak hartzea gomendatzen da.
- Garbigunera eraman behar diren hondakinak ondo kudeatzen direla esan daiteke.
- Aurtengo ikerketan, aurrekoan ez bezala, hildako animaliak azaldu dira. Hauen kudeaketaren arauak zabaldu behar dira.
- Errefusaren datuak, berriz, nahiko onak dira nahiz eta hobetzea dagoen.

## 4.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

- Edukiontzi horira egoki botatako materiala %86,04a suposatu dute. Inpropioak, berriz, %13,96a izan dira.
- Datu hauek hobetzeko asmoz, ontzi arinetara bota behar ez diren hondakinak ezagutzen erakusten jarraitu behar da.

| ADUNA-ORENDAIN 2016/05/30 | |
|---|---|
| **Frakzioa** | **%** |
| Eskatutako materiala | 86,04% |
| Inpropioak | 13,96% |
| Guztira | 100,00% |

**7. taula**: Adunako ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak (eskatutako materiala vs inpropioak)




**17. irudia**: Adunako ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen grafikoa (eskatutako materiala vs inpropioak)

# 5 2014-2016ko KARAKTERIZAZIOEN ARTEKO ALDERAKETA

Aurreko fasean egindako karakterizazioan (2014ko azaroak 25ean), 519 kilo hondakin bildu ziren eta, momentu horretan, ez laurdentzea erabaki zen; pisuaren emaitzak ikusita, laurdendu beharko zen. Aurtengo fasean, berriz, 415 kilo bildu dira eta 207 ikertu dira, %20 bat gutxiago. Hala ere, aurten ikertu den materiala 9 egunetakoa izan da eta aurrekoa, berriz, 15takoa lehen hilean bitan jasotzen baitzen errefusa.

Ez da aldaketarik egon errefusaren bilketa sisteman aurreko faseko ikerketatik honetara, bakarrik bilketaren maiztasunean aurrekoan bi astetan behin biltzen baitzen eta egun, berriz, astero. Printzipioz, eta eskuratutako datuen arabera, ez da ezta aldaketarik egon konposta egiten duten etxebizitzen kopuruan ere.

Orokorrean, ikertu diren frakzioen ehuneko guztiak okerrera egin dute aurrekoekin alderatuta. Hasteko, aurten hildako animaliak azaldu direla esan behar da (5,24 kg, %2,52a); 2014an, berriz, ez. Gainontzeko datuak, hildako animalia hauek kontutan hartu gabe azalduko dira.

Frakzio konpostagarriaren ehunekoa ia bikoiztu da: %7,12 2014an eta %13,44 aurten. Frakzioka, biek egin dute gora: %5,55 (2014)-%9,33 (2016) materia organikoarentzat eta %1,57 (2014)-%4,11 (2016) frakzio begetala.

Frakzio birziklagarri guztiak igo dira, %5 bat guztira. Beira %0,97tik %2,60ra; papera eta kartoia %4,46tik %5,31ra; ontzi arinak %4,90etik %7,61era.

Errefusaren proportzioa beraz jaitsi egin da, gutxiago azaldu da 2016ko karakterizazioan (%70,31a eta %82,14a 2014an), nahiz eta sanitario eta ehun gehiago jaso izana.

Bukatzeko, berezi eta arriskutsuen frakzioa ere handiago izan da 2016ko karakterizazioan 2014koan baino (%0,73a 2016an eta %0,43a 2014an), nahiz eta aurten tamaina handikorik ez azaldu.




**18. irudia**. Adunako 2014ko eta 2016ko karakterizazioen arteko alderaketa (frakzio nagusiak, hildako animaliarik gabe)




**19. irudia**. Adunako 2014ko eta 2016ko karakterizazioen arteko alderaketa (frakzio nagusiak, hildako animaliarik gabe)

# 6 UDALERRIEN ARTEKO ALDERAKETA

Jarraian, Adunako datuak aurkezten dira, landa eremuko udalerriekin alderatuta, Andoaingo datuak ere sartu dira materia organikoa kudeatzeko sistemarik ezarrita ez duen herri batekin alderatu ahal izateko ere. Gai nagusien portzentajeak adierazi dira, herri bakoitzean atera diren hondakin bereziak (hildako animaliak, obra hondarrak, etab.) kontutan hartu gabe.

Landa eremuko udalerri gehienek organikoa kudeatzeko konpostajea ezarri dute sistema bakar moduan, eta askok errefusaren ekarpenak mugatzeko neurriak hartu dituzte.

Herri guzti hauen karakterizazioen emaitzen grafiko orokorra erakusten da hurrengo irudian. Datu garrantzitsuak ikustea zaila denez, grafiko ezberdinak erakutsiko dira frakzio batzuk azalduz.

Konpostajea materia organikoa kudeatzeko bide bakarra duten herri gehienetan, honen kudeaketa berezia nabaritzen da frakzio konpostagarrien ehunekoetan, nahiz eta kasu batzuetan (adibidez Alkiza, Asteasu, Belauntza, Leaburu) oso handiak izan. Adunako datuak gainontzeko herriekin alderatzen badugu, nahiko datu onak ateratzen direla esan daiteke, bataz bestekotik urrun.

Bestalde, eta osagarrizko bidekoen barruan bertako sistema bereziak dituen herrietan (Albiztur eta Berrobi) emaitza onak azaltzen dira, talde osoko frakzio konpostagarrien bataz bestekotik azpitik.

Gai birziklagarriei dagokionez, orokorrean lan handia egin behar dela ikusten da. Herri hauetan azaldutako frakzio birziklagarriaren proportzioa (hondakin bereziak barne) errefusetik sailkatutako hondakinen %20 inguruan kokatzen da. Adunan frakzio birziklagarrien ehunekoak batzen baditugu %16 ateratzen da, bataz bestekoaren azpitik. Orokorrean frakzioka, beira hoben sailkatzen dena dela ematen du eta, hala ere, %2,38an azaldu da. Hurrengoak, hondakin bereziak izango lirateke %3,87 batekin. Jarraian papera eta kartoia (%4,50a) eta, orokorrean gertatzen den bezala, okerren sailkatzen den frakzio birziklagarria ontzi arinena izan da talde honetan ere, taldeko osoren bataz bestekoa %8,78a izanik, baina maximoa Gaztelukoa (%24,67a)dela kontutan harturik. Bestalde, gogoratu behar da portzentajeak pisuei dagokiela, beraz ontzi arinen kasuan kantitate handietan agertzen direla esan behar da. Beiraren kasuan berriz, emaitzak hobeak diren arren, beti agertzen dira.




**20. irudia**. Herrien arteko alderaketa, landa eremua eta Andoain (grafiko orokorra)




**21. irudia**. Herrien arteko alderaketa, landa eremua eta Andoain (errefusa versus materia konpostagarria) ER-errefusa / FK-frakzio konpostagarria




**22. irudia**. Herrien arteko alderaketa, landa eremua eta Andoain (frakzio birziklagarriak, hondakin bereziak barne) FB-frakzio birziklagarria

| BIDE BAKARRA + OSAGARRIZKO BIDEA | MATERIA ORGANIKOA | FRAKZIO BEGETALA | BEIRA | PAPERA & KARTOIA | ONTZI ARINAK | ERREFUSA | BEREZIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADUNA | 9,32% | 4,11% | 2,60% | 5,31% | 7,61% | 70,31% | 0,73% |
| ALKIZA | 23,82% | 20,00% | 1,30% | 3,00% | 7,01% | 33,33% | 11,53% |
| ALTZO | 16,44% | 3,56% | 1,08% | 1,65% | 4,00% | 71,18% | 2,08% |
| AMEZKETA | 7,04% | 5,32% | 0,27% | 2,01% | 3,51% | 77,71% | 4,15% |
| ASTEASU (herrigunea) | 40,79% | 5,43% | 2,38% | 3,70% | 11,26% | 32,91% | 3,52% |
| ASTEASU (landa eremua) | 31,45% | 3,98% | 1,45% | 3,38% | 11,78% | 38,74% | 9,22% |
| BELAUNTZA | 30,22% | 14,49% | 3,75% | 6,06% | 8,10% | 32,81% | 4,56% |
| BERASTEGI | 6,01% | 8,13% | 0,56% | 1,95% | 3,19% | 70,85% | 9,30% |
| ELDUAIN | 16,19% | 4,15% | 1,35% | 4,40% | 8,41% | 63,92% | 1,57% |
| GAZTELU | 32,83% | 0,75% | 6,55% | 5,76% | 24,67% | 26,01% | 3,41% |
| HERNIALDE | 24,54% | 6,49% | 5,26% | 7,02% | 12,23% | 40,45% | 4,02% |
| LARRAUL | 26,36% | 2,10% | 2,55% | 2,76% | 9,17% | 54,70% | 2,36% |
| LEABURU | 42,52% | 5,26% | 1,96% | 7,12% | 12,57% | 29,57% | 1,00% |
| LIZARTZA | 14,12% | 0,07% | 1,75% | 2,97% | 7,68% | 71,05% | 2,35% |
| ORENDAIN | 16,65% | 0,40% | 0,21% | 4,07% | 2,99% | 73,43% | 2,24% |
| OREXA | 13,76% | 5,69% | 5,26% | 6,85% | 8,91% | 56,83% | 2,71% |
| ALBIZTUR | 9,34% | 2,00% | 0,44% | 3,54% | 5,05% | 78,81% | 0,83% |
| BERROBI | 15,62% | 2,83% | 1,06% | 4,54% | 8,63% | 62,95% | 4,37% |
| ABALTZISKETA | 38,04% | 14,15% | 3,91% | 7,76% | 10,40% | 22,50% | 3,23% |
| BALIARRAIN | 22,58% | 15,74% | 2,98% | 4,49% | 5,61% | 43,17% | 5,42% |
| ANDOAIN (orokorra) | 55,14% | 1,16% | 3,28% | 6,09% | 11,62% | 20,10% | 2,62% |
| BATEZBESTEKOAK | 23,47% | 5,99% | 2,38% | 4,50% | 8,78% | 51,02% | 3,87% |

**8. taula**. Adunako bilketa sistema berdina daukaten herrien datuak.

# 7 ERANSKINA

## 7.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| HERRIA | ADUNA | EGUNA | 2016/05/04 | ORDUA | 08:30 - 12:30 |
| KOKAPENA | Herri osoko errefusa | IKERTUTAKO EDUKIONTZIAK | 1 | BETETAKO EDUKIONTZIAK | 1 1/2 |
| HASIERAKO PISUAREN ESTIMAZIOA | 415,32 | LAURDENKETA | behin laurdendua | BUKAERAKO PISUA | 207,66 |
| IKERTUTAKO MATERIALA | 9 egunetakoa, apirilak 25 eta maiatzak 3 bitartekoa, apirilak 25ean, astelehenean, jaso baitzen errefusa azkeneko aldiz karakterizatu baino lehenago, ordutegia jarraituz. Maiatzak 4an jaso zen berriro, karakterizazioa egiteko. | | | | |
| OHARRAK | Poltsa dezente Uztartza jatetxekoak: papera, kartoia, ontziak, plastikoak, errefusa, organikorik ez // Uztartza aterpetxean nahastuxeago organiko pixa batekin // Poltsa bakarrean: ontzi dezente, botikak, ogia | | | | |
| ORDENA | GAIA | TARA | PISU GORDINA | PISU GARBIA | OHARRAK |
| 1 | 5.1 | 2,70 | 7,35 | 4,65 | |
| 2 | 4.1 | 1,35 | 4,38 | 3,03 | |
| 3 | 6.3 | 1,35 | 7,55 | 6,20 | |
| 4 | 1.3 | 1,35 | 7,39 | 6,04 | |
| 5 | h.a. | 0,00 | 5,24 | 5,24 | |
| 6 | 6.2 | 1,35 | 22,84 | 21,49 | |
| 7 | 6.2 | 1,35 | 13,12 | 11,77 | poltsetan |
| 8 | 6.2 | 1,35 | 13,35 | 12,00 | poltsetan |
| 9 | 6.2 | 1,35 | 18,15 | 16,80 | poltsetan |
| 10 | 6.2 | 1,35 | 17,14 | 15,79 | poltsetan |
| 11 | 6.2 | 1,35 | 14,85 | 13,50 | poltsetan |
| 12 | 6.2 | 1,35 | 4,91 | 3,56 | poltsetan |
| 13 | 2.1 | 1,35 | 1,89 | 0,54 | |
| 14 | 2.2 | 1,35 | 9,13 | 7,78 | |
| 15 | 1.2 | 1,35 | 7,35 | 6,00 | |
| 16 | 3.1 | 1,13 | 5,15 | 4,02 | |
| 17 | 5.1 | 4,05 | 10,00 | 5,95 | |
| 18 | 6.3 | 1,35 | 8,10 | 6,75 | |
| 19 | 1.2 | 1,35 | 2,86 | 1,51 | |
| 20 | 5.1 | 2,70 | 5,02 | 2,32 | |
| 21 | 4.1 | 2,70 | 8,67 | 5,97 | |
| 22 | 6.3 | 1,35 | 9,88 | 8,53 | |
| 23 | 6.1 | 1,35 | 6,60 | 5,25 | |
| 24 | 1.3 | 1,35 | 6,25 | 4,90 | |
| 25 | 1.1 | 1,35 | 1,78 | 0,43 | |
| 26 | 7.1 | 1,13 | 2,60 | 1,47 | |
| 27 | 6,2 | 1,35 | 16,82 | 15,47 | soltea |
| 28 | 5.1 | 1,35 | 3,83 | 2,48 | soltea |
| 29 | 3.1 | 1,13 | 2,38 | 1,25 | soltea |
| 30 | 6.1 | 1,13 | 2,02 | 0,89 | soltea |
| 31 | 4.1 | 1,35 | 3,10 | 1,75 | soltea |
| 32 | 6.3 | 1,13 | 5,46 | 4,33 | soltea |
| **GUZTIRA** | | | | **207,66** | |

**9. taula**. Errefusaren karakterizazioaren frakzioen pisaldiak.

## 7.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

### *FICHA DE MUESTRA*

ECOEMBES
SEPARAR PARA RECICLAR

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Planta:** | Urnieta | **Fecha:** | 30/05/2016-08:17 |
| **Empresa** | EUROCONTROL, S.A. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Unidad de** | Mancomunidad de Tolosaldea | | |
| **Unidad Administrativa:** | Comunidad Autónoma del País Vasco | | |
| **Unidad de Gestión:** | Mancomunidad de Tolosaldea | | |
| **Nº Muestra:** | 1 | **Periodo:** | May - Ago 2016 |
| **Tipo de Caracterización:** | Recogida Selectiva EELL | **Estado:** | Cargada |
| **Tipo de Muestra:** | Entrada en Instalación | **Proc. Facturación:** | Variable |
| **Tipo de Recogida:** | Envases Ligeros CARGA LATERAL | | |
| **Matrícula Vehículo:** | 2420FYS | **Kg Vehículo:** | 400 |
| **Observaciones:** | Procedencia: Tolosaldea. Ruta: Aduna y Orendain. Desgloses en Kg: (1) Otros: Líquido contenido en envase: 0,22. Multimaterial: 1,42. Restos de medicamentos: 0,22. RAEE´s: 1,33. Cerámica: 0,41. Sólido contenido en envase: 0,78. Restos sanitarios: 0,06. Bolsa de aspirador: 0,44. Material inclasificable del que se ha separado la totalidad de la fracción envase: 0,57. | | |
| **Vehículo Rec:** | No | | |
| **Observ Vehículo Rec:** | Porcentaje de llenado: 25%. | | |

### *Resultado de la Muestra*

| Material | Cantidad (kg) | Peso (%) |
|---|---|---|
| **Material Solicitado** | **217,57000** | **086** |
| Plásticos PET | 36,39000 | 014 |
| Plásticos PEAD Natural | ,6000 | 000 |
| Plásticos PEAD Color | 11,72000 | 005 |
| Plásticos PVC | ,17000 | 000 |
| Plásticos Film (excepto bolsas de un solo uso) | 57,2000 | 023 |
| Plásticos Film bolsas de un solo uso | 15,75000 | 006 |
| Plásticos Resto de Plásticos | 23,38000 | 009 |
| Metales Acero | 31,14000 | 012 |
| Metales Aluminio | 5,65000 | 002 |
| Cartón Bebidas / Alimentos | 35,38000 | 014 |
| Madera | ,19000 | 000 |
| **Material No Solicitado** | **35,31000** | **014** |
| **Material No Solicitado (Excepto Papel/Cartón)** | **32,91000** | **013** |
| Materia orgánica | 6,15000 | 002 |
| Resto de jardín y podas | 1,48000 | 001 |
| Celulosas | 4,06000 | 002 |
| Textiles | 1,29000 | 001 |
| Madera no envase | ,1000 | 000 |
| Madera Envase Comercial/Industrial | ,000 | 000 |
| Vidrio (envases) | 3,51000 | 001 |
| Plásticos No Envase (Excepto Film Bolsas de Basura) | 1,75000 | 001 |
| Film bolsas de basura | 4,82000 | 002 |
| Plásticos Envase Comercial/Industrial (Excepto Film Comercial/Industrial) | 2,37000 | 001 |
| Film Comercial/Industrial | 1,27000 | 001 |
| Resto de obras menores | ,000 | 000 |
| Acero no envases | ,57000 | 000 |
| Acero Envase Comercial/Industrial | ,000 | 000 |
| Aluminio no envases | ,09000 | 000 |
| Aluminio Envase Comercial/Industrial | ,000 | 000 |
| Otros (indicar significativos) | 5,45000 | 002 |
| **Papel/Cartón** | **2,4000** | **001** |
| Papel Impreso | ,28000 | 000 |
| Envase Doméstico con Pto. Verde | 1,02000 | 000 |
| Envase Doméstico sin Pto. Verde | ,94000 | 000 |
| Envase Comercial con Pto. Verde | ,16000 | 000 |
| Envase Comercial sin Pto. Verde | ,000 | 000 |
| **Total** | **252,88000** | **100** |

**10. taula**. Ontzi arinen karakterizazioaren frakzioen pisaldiak.